




Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2020ko maiatza · 364 alea

TOKIKOM

KORONABIRUSA ETA GERO ZER?





PIL-PILEAN 364

2020ko maiatza

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Satur Gil eta Sinfo Muñoz
 - 6 **Begira** Pantaila handian
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Musika ikasleak
 - 18 **Erreportajea** Eta gero zer?
 - 24 **Kultura** Liburutegia zabalik
 - 26 **Gure artistak** Arrate Espilla
 - 27 **Nondik nora** Lucelia Silva
 - 28 **Sakonean** Pandemiak eta plaentxiarren umore beltza
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Maider Gabilondo
Teledana, teleeskola, telezoramena
 - 16 **Gutunak** *Lan-poltsa osatzeko deialdia, Errigoraren oharra*
 - 16 **Hausnarketa** Udalekuak bai ala ez?
 - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Soraluzeko ametza*
 - 17 **Puntua** Enara Agirre *Nork zainduko gaitu*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Telelana, teleeskola ... telezoramena



MAIDER GABILONDO

Drive, meeting, teams, Skype... eguneroko hiztegiara ekarri ditu COVID-19ak. Isolamenduak denok murgildu gaitu teknologian. Adinekoak ere bideo deietan aditu bihurtu ditu. Berrogeialdiaren nobedadeen artean, telelana eta telehezkuntza dira protagonistak. Horri esker, hemen gabiltza, tarterik ere hartu ezinda, inora ailegatu ezinik.

Haurrak etxean daude eta haien zaintza antolatu behar da. Ez bakarrik zaintza, gainera urruneko klaseak eta etxeko lanak egin behar dituzte, eta horretarako laguntza behar dute.

Hezkuntzarekin jarraitzeak hainbat erronka ekarri dizkio hezkuntza sistemari eta bereziki familiei: gurasoen gaitasunak (ezagutzak, denbora...), baliabide teknologikoak (internet, ekipoak, programak...), etxeetako toki fisikoa, e.a.. Egoera horri aurre egiteko, kasu askotan, salbamena telelana izan da.

Telelana familia bizitza eta laboralaren kontziliazio politika ona da. Baina orain arte ez du ezarpen handirik izan. Izurritearen aurretik, datu ofizialen arabera, telelana egin zezaketen langileen %10ak ere ez zuen aukera hori erabiltzen. Egun batetik bestera, eta esperientziarik gabe, errealtate bihurtu zaie langile askori. Ez da astirik izan prestakuntza egiteko, ordutegiak antolatzeke edo ekipamenduak egokitzeko (lantokia, wifia...).

Etxean egon beharrak eta digitalki lanetik deskonektatzeko ezintasunak eragotzi egiten du bizitza profesionala eta pertsonala banantzea, atsedean hartzea, haurren zaintza, haien beharrei erantzutea edo norberarendako denbora izatea.

Horren ondorioz, telelanaren esperientzia nahiko kaskarra izaten ari da askorentzako. Horrek, adituen arabera, eragin handia dauka osasun psikologikoan. IESE Business School-eko ikerlari batek dio, espainiarren %40a baino gehiago "oso estresatuta" sentitzen dela osasun-larrialdi egoera honetan teleanarengatik, eta haurrak dituztenen kasuan %47a. Haur asko ere egoera hau pairatzen ari dira.

Zuk ere, oso estresatuta egon ez arren, ziur askotan pentsatu duzula egoera erotzeko modukoa zela. Esperientzia horren porrotaren arrazoiak asko izan badira ere, bi nabarmenduko nituzke: antolakuntza falta eta lan orduetan bete beharreko beste ardurak guztiak (langile, zaindari, irakasle...). Nire ustez horregatik ez du funtzionatu.

**TELELANAREN
ESPERIENTZIA
NAHIKO KASKARRA
IZATEN ARI DA
ASKORENTZAKO**

“Oso babestuak eta maitatuak sentitu gara herrian”

SATUR GIL ETA SINFO MUÑOZ KORONABIRUSA PASATU DUTE

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

Sinfo Muñozek (Aliseda, Cáceres, 1943) eta Satur Gilek (La Cumbre, Cáceres, 1942) koronabirusa pasatu dute eta orain sendatuta eta onik daude etxean. Kontatu dutenez, esperientzia gogorra izan da, baina aldi berean balio izan die ikasteko eta baloratzeko aurretik baloratzen ez zituzten gauza asko. Elkarrizketan Esti eta Isa alabek ere parte hartu dute.

Nola zaudete? [Sinfo] Oso ondo, kasik joan ginen baino hobeto etorri gara.

[Esti] Hala ere, oso gogorra izan da.

Noiz eta nola jakin zenuten kutsatuta zegoela?

[Satur] Sinfo martxoaren 24an ingresatu zuten koronabirusa zuela eta. Egun batzuk lehenago jausi egin zen eta anbulantziaren eroan zuten Mendaroko ospitalera; han egin zioten frogara.

Zelakoa izan zen jakitea? [Esti] Lanera deitu zidaten amak positibo eman zuela esateko. Egun horretan bertan, eguneko zentrora eta anbulatoriora deitu nuen jakinarazteko. Gero, anai-arreba denok batu ginen eta berrogeialdian egon ginen.

Beldurrik sentitu zenuten? [Isa] Bai, handia. Ama oso ahul zegoen eta hasierako momentuan zegoen informazioarekin, hilko zela pentsatu genuen. Ama ingresatu eta hiru egunetara, sukarra hasi zitzaion aitari, 37,5etik 39ra bitartekoa. Protokoloak agintzen zuen bezala, anbulantziari deitu genion, baina azkenean semeak eroan zuten Mendaroko ospitalera. Momentu horretan, lur jota gelditu ginen.

Zenbat denbora egin zenuten ospitalean?

[Satur] Nik hamabi egun eta Sinfok hilabete eta erdi inguru. Mendarotik Eibarko ospitalera eroan gintuzten, han koronabirusa duten gaixoendako planta dagoelako. Han batera jarri gintuzten.

Noiz jakin zenuten sendatuta zeundetela?

[Satur] Bioi egin ziguten proba. Nik dena ondo eman nuen eta alta eman zidaten, baina Sinfok beste egun batzuk gehiago eman behar izan zituen gutuz osatuta zegoela esan zioten arte.

Ordurako, pertsona baten bisitak jasotzeko aukera zuen. Azpimarratu nahi dut erizainen portaera, zoragarria izan da ze mimo eta ze maitasunekin tratatu gaituzten.

Herrian, jendearen aldetik zelako harrera jaso duzue?

[Esti] Nik Correosen lan egiten dut eta badakit berrogeialdian nengoela pertsonaren batzuk esan dutela lanean ikusi nautela...

[Isa] Badago jendea oraindik ere espaloi batetik bestera aldatzen dena, baina tira, besterik barik, beldurra ere libre da ta... Beste batzuek, ostera, ama besarkatu ere egin dute edo euren hurbiltasuna adierazi digute. Hunkigarria izan da. Ni egun hauetan konturatu naiz nire ama eta aita zein maitatuak diren herrian. Oso babestuak eta maitatuak sentitu gara. Jende askok etxera deitu digu edo kalean gelditu gaitu euren berri jakiteko edo laguntza eskaintzeko.

[Satur] Ni honek ez nau lotsatzen eta garbi berba egin dut beti. Bai, bitxoak harrapatu nau eta kitto!! Nik ez dut jendearen bazterkeriarik sentitu. Bakarren batek esan dit: “epa, zu hor eta ni hemen” (barrez) eta horrelakoren bat, baina ez besterik.

Buelta asko eman diozue non kontagiatu ote zareten? [Isa] Ez. Ama eguneko zentrora joaten da, Eibarko erreabilitazio zentrora, kafea hartzera, ileapaindegira... Ezinezkoa da jakitea non kontagiatu zen.

Zer ikasi duzue honetatik? [Satur] Gauza asko. Espero ez nuen jende askok deitu dit eta animatu naute esanez: “Animo Satur! ¡Saldrás adelante!”. Horrek asko balio du eta azkenengo egunetan horrelako asko bizi izan ditut. Alderantzizkoren bat ere bai, baina tira... Askok ikasi dut. Gauzak baloratzen ikasi dut, hau gertatu aurretik baloratzen ez nituen gauzak baloratzen ditut orain. Lagunak dira gehien behar duzunean ondoan izaten direnak. Lehen ez nituen lagun asko ditut orain. Horrez gain, ezagutu ditut ospitaleetan euren bizia ematen diharduten pertsonak ere: erizainak, medikuak...



BEGIRA


Pantaila handian

ARGAZKIA: MIKEL VALERO

TESTUA: EGOTZ UNAMUNO

Maiatzaren 9ko ekaitzak aspaldiko trumoi eta tximista erauntsirik ikusgarriena ekarri zuen berarekin. Naturak lantzean behin oparitzen dizkigun ikuskizun handi horietako bat izan zen, ezohikoa bezain ikusgarria; ederra ere bai, babesetik eta patxadaz begira egoteko zortea izan genuenontzat.

Halakoek gogorarazten digute benetako ikuskizuna, handiena, hor kanpoan errepresentatzen dela, 3 dimentsiotan eta beste ezein pantailak berdindu ezin dezakeen neurri eta erresoluzio mailan. Horra hor gure benetako pantaila handia!







Anbulatorioko medikuak atzo, eguena, minutu bateko isilunea egiten.

Egoera normaltzen

Anbulatorioan telefono bidezko arreta lehenesten jarraitzen dute; udaletxean, berriz, hasi dira arreta presentziala eskaintzen. Egoitzan eta Eguneko Zentroan oraindik ezin da bisitarik jaso.

Azken datuen arabera, badira bi aste Debabarrenean COVID-19 gaitzak ez duela inor kutsatu. Aldi berean, egunerokoa gero eta normaltasun itxura handiagoa hartzen ari da. Apurka-apurka, zerbitzuak eta azpiegiturak ohiko funtzionamendurako bidean dira, lehen baino muga gehiagorekin bada ere.

Telefono bidezkoa lehenetsita

Anbulatorioari dagokionez, bertan dira lanean mediku eta erizain guztiak. Hori bai, oraindik telefono bidezko arreta lehenesten dute - 943 75 23 00-. Arreta presentziala telefonoz diagnostikorik egin ezin den kasuetan bakarrik ematen dute.

Tentsioa ez dute hartzen eta, adibidez, ezin dute oxigenoa Ventolinarekin ipini, horretarako NBE (norbera babesteko ekipamendua) duen gela berezia behar baitute; halako zerbitzuak zeregin horretarako prestatuta dituzten gelak dituzten zentroetan eskaintzen ari dira. Sorraluzen, hori bai, etxez etxeko bisitak egiten jarraitzen dute.

Arreta presentziala

Bestalde, aste honetan hasi dira udal langileak arreta presentziala eskaintzen udaletxean. 2. fasearen lehen astea denez, "egoerak aurrera zela egiten duen ikusi arte", 09:00etatik 13:00etara emango

dute zerbitzua, ohi baino ordubete gutxiago.

Bestelako udal zerbitzuei dagokienez, aste honetako eguaztenetik zabalik dago hilerria, ordutegi eta baldintza bereziekin: 08:00-14:00ak bitartean dago zabalik; 15 minutuko banakako bisitak egin daitezke; bertan dauden beste pertsonetik 2 metroko distantzia mantendu beharko da eta maskara erabili beharko da.

Kirol azpiegiturei dagokionez, berriz, aste honetako astelehenetik dago haiek zabaltzeko aukera. Gaur, barikua, gaia aztertuko dute udaletxean. Kirol instalazioak zabaltzeko ezarritako neurri murriztaileek baldintzatuko dute Udalaren erabakia.

Egoitza eta Eguneko Zentroa

Azkenik, Mesedeetako egoitzari dagokionez, oraindik ezin da bisitarik egin. Aurreikuspenaren arabera ekainaren 8tik aurrera hasi ahal izango dira bisitak jasotzen eta egoiliar berriak onartzen -baldintza oso zorrotzekin-, baina ez dago ezer zehaztuta.

Gauza bera gertatzen da Eguneko Zentroarekin ere, itxita jarraitzen du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, bigarren fasean "zentroak egokitu" egingo dira eta hirugarren fasean -ekainaren 21era arte-, "pixkanaka" irekiko dituzte.

ZERBITZUAK OHIKO FUNZIONAMENDURAKO BIDEAN DIRA, NAHIZ ETA ORAINGOZ, MUGAK IZAN



Kiroldegiko solairu berria gertu dago, herritarrek estreinatzeko zain.

Hainbat obra bukatu dituzte

Kiroldegiko solairu berria bukatuta dago, eta bertan dira gimnasio berriko makinak ere; datozen egunotan erabakiko dute noiz eta nola ireki

Alarma egoera izan arren, azken hiru hilabeteotan hainbat obra burutu ditu Udalak. Handiena kiroldegian solairu berria eraikitzea izan da. Apirilean bukatu zituzten lan horiek eta bertan egokitu duten gimnasio berriko makinak dagoeneko ipinita daude, herritarrek erabiltzeko gertu.

Gaur, barikua, kirol instalazioak irekitzeko aukera aztertzeko batzarra egingo dute. Gaur bertan edo datozen egunotan jakinaraziko dute noiz zabalduko duten udal kiroldegia, eta horrenbestez, kiroldegiko solairu berria.

Asfaltatze-lanak

Kirol azpiegiturekin segituz, estalpe berria jarri die Udalak Ezoziko Futbol Zelaiko harmaileri. Abenduko haizeteek kaltetu zuten uralitazko

estalpea. Orain, haren lekuan txapazkoa jarri dute, aurrekoa baino gogorragoa eta iraunkorragoa. 13.503,60 euro kostua izan dute obra horiek; hortik 7.512 euro Udalak kontratatuta duen Mapfre aseguru-etxeak ordaindu ditu.

Bestalde, aste honetan hasi eta bukatu dituzte herriko hainbat puntu asfaltatzeko lanak. Mendiola industrialdean hasi eta saihebiderrainoko (Arraikuaraino) zuloak tapatu dituzte zoladura berria ipinita.

Lanok egitearren 28.386,02 (BEZa aparte) euro ordaindu ditu Udalak, Patria telesailaren grabaketa lanen bide-okupazioagatik Udalarri ordaindutako diruarekin.

Azkenik, joan den hilabete erdialdean, zebra-bidea berritu zuten Estazioan, irisgarritasuna bermatzeko.

Haurreskolarako izen-ematea gertu

Ekainaren 8ra arte zabalik dago Haurreskolan izena emateko epea. Eskaintza 2019-2020 urteetan jaiotako umeei dago zuzenduta, Haurreskolan irailan, urrian edo azaroan hasteko.

Bi bide daude izena emateko: online, maiatzaren 21etik ekainaren 8ra; edo aurrez aurre, Haurreskolan bertan, ekainaren 1etik 8ra, astelehenetik barikura, 09:00etatik 14:00ak bitartean.

Informazio gehiago behar izanez gero, soraluze.soraluze@haurreskolak.helbidera idatz daiteke, 943 75 13 32 zenbakira deitu edo astelehenetik barikura Haurreskolara joan, 09:00etatik 14:00ak arte.

Lore lehiaketa abiarazi du Udalak

Udaleko Ingurumen Batzordeak V. Balkoi eta Leihotako Lore Lehiaketa antolatu du. Bertan parte har dezakete Soraluzeko etxebizitzetako jabe edo errentariak diren bizilagunek. Izena emateko, parte hartzailearen izen-abizenak eta balkoi edo leihoa identifikatzeko helbidea eman behar dira ekainaren 26a baino lehen. Bi modutara eman daiteke izena: udaletxera bertaratuta ala 943 75 30 43 telefonora deituta.

Udalak bi sari banatuko ditu: 150 euro eta 75 euro. Sari-banaketa uztailaren 6an egingo dute, 11:00etan, Plaza Berrian.



Pili de la Presa, Plaentxi Eskolako ikasketa-burua, eskolaren atarian.

Amaitzear dago ikasturtea

Plaentxi Herri Eskolan zein Soraluzeko BHI Institutuan ekainaren 19an bukatuko dute ikasturtea, berria noiz eta nola hasiko duten jakin barik

Telematikoki bada ere, Soraluzeko ikastetxe biek, Plaentxi eskolak zein Institutuak, ekainaren 19an bukatuko dute 2019-2020 ikasturtea. Hori bai, oraindik, ez batak eta ez besteak, ez dute jaso 2020-2021 ikasturteari dagokion egutegia, maiatzean jaso ohi dutena. Beraz, ez dakite ikasturte berria noiz eta nola hasiko duten.

Herri eskola

Plaentxi Herri Eskolatik jakinarazi dutenez, ikasleen txostenak ekainaren 17an banatuko dituzte, ikasturte hasieran iragarritako moduan, e-mail bidez helaraziko dizkiete gurasoei. Horrez gain, gurasoei egiten dituzten ikasturte amaierako elkarriketak telematikoki egitea lehenetsiko dute. Hala ere, gurasoren batek horrela egiteko zailtasunen bat badu, edo nahiago badu beste modu batera egin, ikaslearen

tutorearekin adostu dezake. Horrez gain, eskolatik jakinarazi dute hezkuntzarekin edo teknologiarekin edozein zailtasun mota izan duten ikasleek behar izan duten laguntza jaso dutela irakasleengandik.

Institutua

Soraluzeko BHI Institutuari dagokionez, berriz, ikasturtea bukatu ondoren, ez-ohiko azterketen prestakuntzari ekingo diote. Zentzu horretan, baliteke 4. mailako ikasle batzuek errefortzu eskolak izatea, modu presentzian, baina gainerakoek prestakuntza hori modu telematikoa jasoko dute, "antolatutako plangintzarekin" aurrera eginez. Irakasleek, berriz, ekainaren 30ean bukatuko dute ikasturtea, zuzendaritzakoek izan ezik; haiek uztailean ere lanean jarraituko dute.

Salgai daude Bizikaleko poltsak

Merkatariei laguntzeko kanpaina abiarazi du Bizikale elkarteak. Oihalezko 500 poltsa jarri ditu salgai herriko saltokietan eta tabernetan, 5 eurotan poltsa arina eta 7 eurotan sendoa. Poltsen salmentatik eskuratuko duten diruarekin kontsumo-bonuak aterako dituzte, herriko saltokietan eta tabernetan gastatzeko.



Bizikaleko poltsa erakusten.

Pentsioen aldeko mobilizazioak

Alarma egoera ezarri zenetik egiteke egon ondoren, ekainaren 8an, astelehena, hasiko dira "pentsio publiko duinen" aldeko mobilizazioak egiten, beharrezko segurtasun neurriak zainduta, hori bai. Soraluzeko Pentsiodunen Mugimenduak gogora ekarri du hitzordua ohikoa izango dela: 12:00etan Plaza Berrian.



Eukaliptoia landatu duten eremua.



Eukalipto landarea.

Eukaliptoia gelditu nahian

Eukalipto landaketak geldiarazteko eskatzen duen ekimenak 500 sinadura baino gehiago jaso ditu dagoeneko. Ekimenaren helburu nagusia Soroluzen espezie horren landaketak debekatzea da.

Sagar-Erreka inguruan egin berri diren eukalipto-landaketekin arduratuta, herritar talde batek Soroluzeko Baso Biziak izenpean, sinadura bilketa abiatu du, Soroluzeko Udalarri herrian eukalipto-landaketak debekatu ditzala eskatzeko “espezie inbaditzailea delako eta lurra pobretzen duelako”.

Joan zen zapatuan ekin zioten sinadurak batzeari eta dagoeneko 500 sinadura baino gehiago jaso dituzte: horietatik 400 inguru internetez eta gainerakoak, 100etik gora, azken egunotan plazan ipini duten mahaian. Pablo Galarraga taldekideak adierazi duenez, “oso gustura” daude

herritarren aldetik jaso duten erantzunarekin. “Adin eta sentibilitate politiko guztietako jendeak sinatu du, mendia maite duen jende askok, eta horrek indarra ematen digu ekimenarekin aurrera jarraitzeko”. Printzipioz, sinatu ahal izateko epea ekainaren 6ra arte luzatuko dute.


Eskaera Soroluzeko Udalarri
Sinadurak batu ostean, naturzaleek herrian ordezkariatza duten alderdiekin batu nahi dute euren proposamenen gainean berba egiteko. Ondoren, eskariekin idatzi bat prestatuko dute, udalbatzarrerara eroan eta bertan puntuz puntu bozkatu dadin.

“Udalari eskatuko diogu Soroluzen eukaliptorik landatu ez dadin bere esku dagoen guztia egin dezan; eta Aldundiari, baso-politikaren ardura duen erakundeari, adierazi dizaion Gipuzkoan eukaliptoia landatzea baimentzen duen baso-politikarekin ados ez dagoela”, azaldu du Antton Alberdi naturzaleak.

Alarma piztu duten landaketak
Naturlazaleen artean alarma piztu duten landaketak Sagar-Errekatik gora dagoen mendi magal batean daude, Bergarako lurretan, Topinburu mendiaren inguruan, 15 hektarea inguruko lursail batean. Urtebete inguru da bertan zegoen pinua bota zutela eta ondoren “matarrasa” teknikaren bitartez lurrak erabat soildu dituzte, azkenik eukaliptoia landatzeko.

**NATURZALEEK
HERRIAN
ORDEZKARITZA DUTEN
ALDERDIEKIN BATU
NAHI DUTE**

ZER BERRI



Plaentxia.eus-eko audientzia datuak.

Ikusienak

1. Bertsovid katea, 6.125 bisita.
2. Koronabirusaren datuak, 4.798 bisita.
3. Lehen positiboa herrian, 4.714 bisita.
4. Eukalipto geldiarazteko sinadura bilketa, 2.409 bisita.
5. Atxiloketa desobedientziagatik, 1.921 bisita.

%45 igo dira bisitak

lazko datuekin alderatuta, martxoan, apirilean eta maiatzean, Plaentxia.eus-en bisita kopurua %45 igo da. Oro har, euskarazko tokiko komunikabideen audientziak igoera handia izan du.

Koronabirusaren krisia hasi zenetik, hedabideen audientziek nabarmen egin dute gora herrialde guztietan. Gurean, euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen Tokikomen, esaterako (bertako kide da Pil-pilean), krisia lehertu osteko lehen 20 egunetan bisita kopurua %34 igo zen. Igoera bereziki deigarria izan zen koronabirusak gehien kolpatu zituen eskualdeetako hedabideetan: Alea.eus-en (Gasteiz) %189 igo ziren bisitak, bere trafikoa ia hirukoiztuz, eta Geuria-n (Basauri), bisitak %142 igo ziren. Joxe Rojas Tokikomeko IKT eta komunikazio zuzendariak

adierazi duenez, “egoera tamalgarri honek argi baino argiago utzi du sarritan bigarren mailakotzat jotzen diren toki komunikabideen garrantzia”.

Plaentxia.eus-en datuek ere horixe erakusten dute, iazkoarekin alderatuta %45 igo baita martxotik maiatzera bitarteko bisita kopurua. Garai honetan, plazentziatarrek inoiz baino gehiago kontsultatu dute herri mailako informazioa, bai internetez eta baita paperean ere. Papereko daturik ez dagoen arren, badakigu herritar askok gogo bereziarekin jaso dituztela azken hilabeteotako aldizkariak. Askok zuzenean adierazi digute hori.

Publizitatea behera

Paradoxikoki, audientziak inoizko altuenak diren garaian, publizitateak behera egin du. Aurreikuspen optimistenaren arabera, sarrerak %30-40 bitartean jaitsiko dira Pil-pileanen. Oraingoan, matrikulazio kanpainetan igarri da jaitsiera, baina pentsatzekoa da arden ez dela jaietako programarik argitaratuko eta, ondorioz, bertan herriko komertzioek eta enpresek ipini ohi duten publizitateak jasotzen den diru sarrerarik ez dela izango.

Dirulaguntzei dagokienez, Udalak eta Aldundiak hitzartutako laguntzak mantentzeko borondatea adierazi dute, alde horretatik ez dugu murrizketarik espero. Dena den, egoera ekonomikoa kezkarria da.

PUBLIZITATEKO DIRU-SARRERAK %30-40 BITARTEAN JAITSIKO DIRA PIL-PILEANEN

"Hasiara zoratzekoa izan zen"

UBANE MADERA ZANGITU KAZETARIA

Azken aste hauek zelakoak izan dira kazetaritza ikuspegitik?

Hasiara zoratzekoa izan zen. Informazio jarria oso handia zen eta dena zen berria, dena koronabirusa, dena garrantzitsua, dena kontatu beharrekoa. Konfinamendu egoera zela eta kazetari lana nabarmen ugaritu eta zaildu zen. Hasiararik argi izan genuen lanean jarraitu behar genuela, komunikabideok funtzio publiko garrantzitsua betetzen dugulako. Hori bai, aldizkariaren kasuan zailtasun eta zalantza gehiago izan genituen, baina aurrera egitea erabaki genuen, eta azkenean, aldizkaria herriko etxe guztietara heltzea lortu genuen. Azken batean, koronabirusaren krisiak are gehiago bistaratu du euskarazko tokiko hedabideen funtzioa; batetik, hedabide handiek eman ezin duten informazioa ematen dugulako, herriko komertzioena, auzokideena... eta, bestetik, informazio hori euskaraz ematen dugulako. Plaentzia. eus-en bisitek ia %50 egin dute gora eta hori oso pozgarria da guretzat.

"KRISIAK ARE GEHIAGO BISTARATU DU EUSKARAZKO TOKIKO HEDABIDEON FUNTZIO PUBLIKOA"



Ubane Madera.

Egoera honetan, zein izan da herritarrek gehien estimatu duten informazioa?

Datuei erreparatuta, ikusi dugu herritarrek asko estimatu dutela informazio praktikoa: saltokien ordutegi berriak, erakundeen eta zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informazioa eta, noski, COVID-19ak herrian izan duen eboluzioa... Horrekin batera, lehen aldiz, herriz gaindiko informazioa ere landu dugu eta interesa piztu dugu.

Uste duzu tokiko kazetaritza egiteko modua asko aldatuko dela?

Ez. Orain, akaso, gehixeago lan egingo dugu etxetik baina, tokiko kazetaritza jendearengandik oso gertu dagoen kazetaritza da, kalekoa, eta uste dut horrek horrela jarraituko duela. Albiste askoren berri kalean jasotzen dugu, herritarrek kontatuta edo zuzenean guk ikusita eta, ondorioz, kalean segituko dugu.

Gure Eskuren mural herrikoia

Gure Eskuk 'Hemen erabaki, herritarrok erabaki' lemapean, ekimena abiatu du "krisiak gehien kaltetu dituen kolektiboen aldarrikapenak plazara ateratzeko". Ekainaren 7an jubilatuen, umeen, erizainen... aldarririk jaso eta "mural herrikoia" batean erakutsiko ditu, 11:00etatik 14:00etara bitartean, Plaza Berrian.



Aldarririk kartoieta idatziko dituzte.

Presoak bisitarik gabe

Soraluzeko Sarek jakinarazi duenez, martxoaz geroztik, Sebas Etxanizen senideek ezin izan dute bisitarik egin kartzelak itxi dituztelako. Horrekin batera, salatu du Espainiako Gobernua ez dituela presoak gerturatu, hainbat eragilek eta Jaurlaritzak berak behin eta berriz hala eskatu dioten arren.


Eutsiko diogu!

TESTUA: NAGORE SANZ MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

ARGAZKIAK: MUSIKA ESKOLA

Familia asko dira beraien seme-alabak musikan hezten dituztenak. Zertarako ikasi musika? kulturarekiko sentsibilizazioa pizteko, emozioak adierazteko, norbere burua ezagutzeko eta pertsonen arteko loturak sortzeko. Bizi dugun egoera honetan, musika ikasten jarraitzen dute irakasle eta gurasoen laguntza ezinbestekoarekin: Instrumentuak jotzen, abesten, partiturak irakurtzen, konexio telematikoak, plataforma digitalak...

Gogotsu gaude aurrera egiteko. Eskerrik asko bihotzez egiten ari zarenen lan bikainagatik! Barrenetik musika sentitu, bizi, gozatu... Eutsiko diogu!





GUTUNAK

Lan-poltsa osatzeko deialdia

PIL-PILEAN EUSKALTZALEEN ELKARTEA

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak deialdia kaleratu du Auzoko egitasmoa kudeatuko duten aniztasun teknikarien lan-poltsa osatzeko.

ESKAINTZEN DA:

- 10-15 orduko lanaldia.
- 4 hilabeteko froga aldia,

luzatzeko aukerarekin.

BALORATUKO DA:

- Soziolinguistikari buruzko oinarritzko ezagutza.
- Antzeko egitasmoetan izandako esperientzia.
- Euskararen ezagutza maila egokia eta atzerriko hizkuntzen ezagutza.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna.

- Planifikatzeko, ebaluatzeko eta antolatze gaitasuna izatea.

- Informatika eta teknologia berrien gaineko oinarritzko ezagutza izatea.

- Jarrera dinamikoa, sortzailea eta ikasteko prestutasuna izatea.

- Soraluzekoa izatea.

Errigorako produktuak ekainean banatuko dira

ERRIGORA ANTOLAKUNTZA

Errigora ekimenak jakinarazi nahi du udaberriko kanpaina eskatu ziren produktuak ekainean banatuko direla. Datozen egunetan jakinaraziko ditugu banaketa eguna, ordua eta lekua.

Bestalde, eskaeretan posta elektronikoa adierazi zuten

kontsumitzaileek email bat jasoko dute, ekainaren 2ra arte (berau barne) eskaeraren ordainketa txartelarekin egin ahal izateko. Eskerrik asko eta laster arte!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Udalekuak bai ala ez?

Aisialdi taldeek umeen aisialdirako eskaintza inoiz baino beharrezkoagoa dela aldarrikatu dute. Aldiz, erakundeek oraindik ez dute erabaki aurten udaleku irekiak egiterik izango den.



ELENE ALBERDI
GURASOA

"Beharrezkoa da umeak sozializatzea, bestela, konfinamenduaren ondorioak izan litezke guk uste baino kaltegarriagoak. Beraz, zentzuzko neurriak hartuta, ez dut gaizki ikusten umeak udalekuetara joatea, eta ez dut uste arazorik dagoenik udalekuak egiteko".



AIURI GISOLA
UDALEKUETAKO PARTAIDEA

"Udalekuak oso garrantzitsuak dira niretzat, oso ondo pasatzen dudalako, barre asko egiten dudalako eta lagunekin egoteko aukera ematen didatelako. Pena handia litzateke ez egitea, baina ezin bada... Eginez gero, gehien gustatuko litzaidakeena da San Andresera lotara joatea".

ZIR(R)IKA

P.G.



soraluzeko ametza

PUNTUA



ENARA AGIRRE

Nork zainduko gaitu?

Koronabirusak eragindako alarma egoerarekin denok etxean egon gara, asko telelanean, haurrak etxetik ikasten, eguneko zentrotara joaten diren pertsona nagusiak ere etxean... Familia askotan zirku oneneko malabareak egin behar izan dituzte hau dena lotu ahal izateko, ahaleginean burua eta osasuna galdu gabe. Baina COVID-19ak beste lezio garrantzitsu bat ere utzi digu.

Tradizionalki feminizatuak izan diren lan askok garrantzia berezia hartu dute garai honetan eta badirudi orain konturatu garela hauen garrantziaz: irakasleen dedikazioa, osasun langileen bokazioa edota nagusiak zaintzen lan egiten duten emakumeen etengabeko lana.

Denok gaude amesgaizto hau amaitu eta lehengora bueltatzeko zain, baina zein egoerataz ari gara? Produktzioa eta kontsumoa erdigunean zituena zaintzen kaltetan? Zaintzei behar besteko garrantzia ematen hasiko gara ala, berriz ere, ezkutuko bazterren batera zokoratuko ditugu? Azken finean, nork zainduko gaitu?



MIREN GALLASTEGI
KUKUMIXOKO
DINAMIZATZAILEA

"Udalekuak egitearen aldekoak gara, uste dugulako garrantzitsua dela umeendako, eta beharrezkoa. Sozializatzeko beharra dute eta honek lagunekin egoteko aukera ematen die. Besteok badugu eskubide hori. Proposamen bat prestatzen ari gara udalari aurkezteko".



PATRICIA BORINAGA
UDFALEKO GAZTERIA
ZINEGOTZIA

"Momentu honetan ez dakigu udalekuak egingo diren ala ez. Erakundeetatik hainbat irizpide jaso ditugu, horietako batzuk kontrajarriak ere bai eta horiek aztertzen dihardugu. Azken erabakia ekainaren 3an hartuko dugu, Gazteria batzordean, gainerako eragileekin batera".

Sei gogoeta, orainaz eta etorkizunaz

Hainbat arlotan arituak edota adituak diren sei soraluzetarri hausnarketa egiteko eskatu diegu koronabirusaren krisiak gizartean eragin duen egoeraz eta etorkizunean eragin ditzakeen aldaketez. Sarrerako testua: **Ubane Madera**. Argazkia: **Fernan Oregi**.

Covid-19aren krisiak irauli egin du normaltasuna, orain arte ezagutzen genuen egunerokoa. Astero "normaltasun berriak" sortzen ari dira, deskonfinamenduaren fase batetik besterako trantsizio tarte bakoitzean aldatu egiten dituztekako gomendioak.

Baina, hasierako shock egoera gaingidituta, ematen du hasieran sortu ziren kateak askatzen ari direla, eta poliki-poliki, guzti honen aurretik ezagutzen genuen normaltasunera bueltatzen ari garela.

Hori da zenbaiten desira. Ez, ordea, beste askorena.

Gabeziak lehen lerroan

Koronabirusaren krisiak hainbat gabezi, egiteko modu desegoki, ohitura oker bistaratu ditu: ekonomikoak, ekologikoak, bizi-erritmoari lotuak... Lehenagotik ere hor zeuden, baina koronabirusaren krisiak lehen lerroan jarri ditu eta gogoetak orokortu egin dira.

Pertsonak erdigunean

Herriko sei adituri adituri eskatu diegu gertatu denari eta etor litekeenari buruz hausnarketa egiteko. Hezkuntza, ekonomia, antropologia, gizatasuna, kontsumoa... bakoitzak bere esparrutik egin du gogoeta, baina guztiak bat egin dute ideia batekin: gauzak aldatzeko beharra dago eta hobe da ez bueltatzea lehengo "normaltasunera". Guztiak ikusten dute beharra, besteak beste lehenetasunak aldatzeko, pertsonak erdigunean jartzeko eta elkarrekin aurrera egiteko.



"Jendarte honek zaintzak zaindu behar ditu"

MAITE LARRAÑAGA ORBEA HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO KUDEATZAILE OHIA

Martxoaren erdi aldera, herriko eskolak itxi egin ziren COVID-19aren krisiak eraginda: haurreskola, eskola eta institutua. Neurri horrekin, haur guztiak jarri ziren pandemia honen erdigunean eta bazirudien haurrak zirela gaixotasuna transmititzeko aukera gehien zituztenak. Beraz, haurrak 40 egun baino gehiago egon behar izan dira etxetik irten gabe, eta gero, egunean ordu betez irteteko aukera bakarrik izan dute, beste guztiok baino gutxiago, haurren eskubideak ukatuz. Haur guztien ongizatea lortu behar dugu eta eskolak hori bilatu behar du. Egoera honek beste era bateko arazoak sortzen ditu



umeengan, ez diegulako lagatzen jolasten, sozializatzen, esperimentatzen, baliabideak erabiltzen... Irtenbide sortzaileak behar ditugu.

Gainera, krisi honek orain arteko zaintzen ereduaren porrota erakutsi digu; eta orain arte ez

zaiela daukaten garrantzirik eman, emakumeen eskuetan egon direlako (feminismoaren aldarrikapen garrantzitsua). Jendarte honek ZAINZAK zaindu behar ditu, horiek direlako bizitzari duintasuna ematen diotenak. Guztion ardura denez, zerbitzu publiko duinak behar ditugu, oraingo ereduak birplanteatzu.

Egoera honek lehenetsunak aldatu ditu: jendartearenganako konfiantza, zerbitzu publikoak, ingurumena, kontziliazioa, telelana, herriko lehenengo sektorea eta tokiko merkataritzaren garrantzia, oinarritzko zenbait baliabide ekoizteko gaitasuna... aurrean jarri ditu. Honek zera eskatzen du: erakundeen aurrekontuak egokitzea eta politika fiskala birplanteatzea.

"Nagusien paperaz serio hausnartu beharko genuke"

MIKEL SANTIAGO FRANTZISKOTARRA ETA ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA

Inoiz ez genuen pentsatuko horrelako egoera bat biziko genuenik. Agian bizitza berri bat deskubritu dugu denbora tarte honetan. Zoritxarrez, hainbat lagun eraman ditu gaixotasunak. Badirudi egoera arintzen ari dela, baina zerbait ikasi ote dugu?

Gure nagusiak gaixotzen ikusi ditugu eta asko bakardadean hil dira, inguruko laguntasunik gabe. Gizarteak egoitzak hornitu ditu eta kasu batzuetan gogor jo die gaixotasunak. Pertsona nagusiek jokatu beharreko paperari buruz serio hausnartu beharko genuke. Nagusiak alboratzen dituen gizarte bat nahi dugu?



Nola bizi izan dute egoera pobre eta baztertuek? Jatekorik ez dutenentzako jantoki baten laguntzen aritzeko aukera izan dut nik garai honetan. Batzuk egunean zehar gordeta egoteko lekurik ez duten, arren polizia ez die kalean ibiltzen uzten. Jantokia baldintza

normaletan irekita egoteko aukerarik ez da egon, beraz, janaria poltsatan banatu da. Eurak ere gaixotzeko beldur dira. Hainbeste jende gizarteratzeko modurik ez ote daukagu? Egoera hau dexente gaiztotuko da gainera.

Sarritan entzun dut egun hauetan fedea ez duela balio honelako pandemia bati aurre egiteko eta egia da miraririk ez dela gertatuko, baina gizakiaren parte den espiritualtasunak bizitzen laguntzen digu, pertsona erdigunean jartzen. Gauzak aldatzeko zerbaitetan sinestu beharra dago. Zentzumenekin jasotzen duguna baino askoz gehiago gara gizakiak, zorionez, eta zerbait horren egarri bizi gara. Itxaropenak bizi arazten gaitu, eta hor ere badaukagu erronka eta aukera.

"Elkarrekin egoteko premia dugulako gaixotu gara"

JOKIN OREGI ANTZERKIGILEA

Gezurra dirudi!

Zomorro nimiño batek halako kaltea eragitea ez da erraz ulertzen; edo ulertzen badugu ere, zaila da onartzen. Shock egoera batean gaude. Horren beharrezko dugun segurtasuna birrinduta, sosegua aztoratuta, oreka hankaz gora eta etorkizuna laino artean.

Ni hala nengoen pandemia iritsi aurretik ere, esango du batek baino gehiagok. Ez zaie arrazoirik faltako.

Gure sozializatzeko erak edo garatu ditugun harreman formulek erreztu egin dute gaitzaren hedapena. Elkarrekin egoteko premia dugulako gaixotu gara, eta aldi berean, egoeraren latza gaudituko badugu, elkarrekin



egonda izango da. Elkarri lagunduta.

Ederra laguntza, esango du norbaitek muzinduta, non zeuden informazioa kudeatzen duten horiek guztiak? Munduko ez dakit ze puntatan gertatzen dena segunduan ikusteko gauza gara gure teknologia

puntakoagoekin, baina... Zergatik ez zuten alarmaren botoia lehenago zapaldu? Galdera horiek egiten dituenari ere ez zaio arrazoirik faltako.

Antzerkiaren egoerak ez nau kezkatzen gehiegi, antzerkigileenak bai, ordea. Azalduko dut: krisia nozituko dugu, beste hainbat alorretako kideek adina. Baina antzerkiak tinko eutsiko dio, jendeak beti duelako mundua ulertzeko premia, egoera berrietara moldatzeko beharra, gure miseria edo gaitasunak ezagutzeko gogoia. Eta horiek guztiak eta beste makina bat gauza kulturak eskaintzen ditu. Beraz, premia horiek guztiak asetzeko sendo egin beharko da lan.

Ez ote gauden ezjakintasunean gozoago, botako du hirugarren batek. Eta honi bai, honi arrazoiak faltako zaio.

"Krisi garai hau adimen kolektiboaren garaia da"

BEATRIZ AKIZU AIZPIRI ANTROPOLOGOA ETA EUSKO IKASKUNTZAKO KUDEATZAILEA

COVID-19ak krisi hitza trending topic bihurtu du. Froga, zorigaitza eta ziurgabetasuna trending, beldurra eta kontrola topic.

Krisi kontzeptuak froga, zorigaitza, ziurgabetasuna terminoak gordetzen ditu. Hausturaren erreferentzia ekartzen digu gogora ere, alegia, orainaldian gertatzen denaren, aurreko patroien eta etorkizunak ematen dituen aukeren arteko haustura. Horrela, krisiek agerian uzten dute zenbait "kosmobisio egituratzaileen" agonia-egoera, bai gure praktika teorikoena, bai gure esperientzia historikoena. Baina paradigma-krisia eragiten duen ezinegon orok, kontzeptu eta praktika berriak



sortzeko moduei buruz ere zerbait esaten digu. Horregatik, krisia aukera dela esaten da.

COVID-19ak "normaltasuna" nola eraikita dugun azaleratu du. Batetik, XXI. mendeko eronka globalak ekarri ditu gogora kolapso ekologikoan azpimarra jarritz.

Bestetik, sistema ereduaren pitzadurak utzi ditu agerian. Krisi garaia erabakiaren, adimenaren eta ausardiaren garaia izan da beti. Baina aurreko krisietako erantzunak errepikatzeak arriskua dugu ere, eta "normaltasunera" bueltatzeko hartu beharreko erabakiak, sistemaren egiturazko arazoaren pitzadurak estaltzeko estrategiak izatea.

Krisi garaia erabakia eta adimenaren garaia da; egungo krisi hau, elkarrekin erabakitzeak eta adimen kolektiboaren garaia dela esango nuke. Herri gisa dugun eronka izango da aipatzen den "normaltasunera" ez bueltatzea eta kontzeptu eta praktika berriak sortzeko esparruen sorrera bultzatzea. Horretarako, erantzunkidetasuna eta erabakigune partekatuak jarri behar ditugu trending eta herri eztabaida topic.

"Zer normaltasun nahi dugun pentsatzeko astia dugu"

DAVID LINDEMANN EHUKO IRAKASLEA

Pandemia baino lehen, abiadura handiko trenak zirkulatzen zuen, Bruselas eta Kolonia bi ordutan batzen zituena, egunean 17 aldiz. Tren berean Dortmund aldera jarraituta, lantegi erraldoi bat ikus daitekeela esaten dute. Txerriak zatitzen dihardute hor 300 langilek, 12 orduko bi txandatan. Binaka edo hironaka egiten dute lo, langile-ostatuko gela nimiño eta lizunduetan. Guztiak errumaniarrak omen. Konfinatuta daude hirurehunak orain, 270ek eman dute positibo.

Gaur, bide horretan tren bakarra dago, eta barnean Bruselas aldera doan maskaradunak langileak ikusi ditu, ez leihotik, pantailan baizik,



lor্তু dutelako zirku mediatikoan agertzea. Maskaradunaren arreta bereganatu dute haragi merkearen industriaren esklabotza eztabaidagai bihurtzeko asmotan; orain dela momentua, diote langileek, horretaz hitz egiteko. Lantegia itxita dago orain, herritar

talde batek, bertako gertakariez jabetuta, ixtea lortu berri baitu: orain dela momentua, lantegi hura zer baldintzetan irekiko den eztabaidatzeko, nola eta zertarako ekoitziko duen haragia. Europako beste herrialdeetara, Errumania barne, eta Txinara ere saltzen omen zuten haragia.

Adibidea besterik ez da. Orain dela momentua: gai gehiagori lotuta entzun daiteke bolada honetan. Coronari esker! Konfinamenduan pribilegiatuak garenok, hau da, konfinamendua gauzatzeko moduko etxea dugunok, normaltzat hartzen genuen horretatik zer nahi dugun etorkizunean, eta zer ez, sakon pentsatzeko astia dugu orain. Abiadura handiko gure ohiturak Coronak geldiarazi dizkigun une honetan, ez zaigu gairik falta. Normaltasuna? Ez, eskerrik asko.

"COVID-aren gainetik, solidario izaten jarrai dezagun"

GOTZON ELIZBURU EROSKIKO ZUZENDARI KOMERTZIAL OHIA

COVID19: Paralisis ekonomikoa. Gaixotasunaren beldur. Ahulena gehien sufritzen. Elkartasuna. Zalantzak... Bi hilabete pasatu dira eta agerian geratu da kanpoko herrialde, enpresa eta interesen menpe bizi ginela. Globalizazioak jarraituko du, baina herri bakoitzak estrategikoak diren produkzioak berreskuratu beharra dauka, lan baldintza duinekin, erantzukizun sozial argiarekin. Elikagaien sektorea da adibide nabarmena, balio kate osoa babestu beharra dago.

Eragin ekonomiko handia izango da; %20ko langabezia eta lan baldintzak okerrera; kontsumoan prezio borroka izango da; beherapen eskaintzek eta marka



zuriko salmentek gora egingo dute. Kostu finkoak, argia, ura, hipoteka... diru txikiago utziko du janaritarako. Aurrezten saiatuko gara, eta horrek "beharrezko" ez den kontsumoan murrizketa ekarriko du, enpresetan zuzenean eraginez. Segurtasunak portaera baldintzatzen du. Herriko

saltokietan gehiago erostea ekarriko du, batez ere, egoerara egokitzen badira, prezio eta zerbitzu egokiek.

Merkeenekin batera, bertako produktuak protagonista dira, osasunarekin lotuta eta bertako ekonomia pizteko asmoarekin; etxean sukaldatzeko ohitura berreskuratuta, aukera polita. Ostalaritzara pixkanaka hurbilduko gara; zaila, normaltasun osoa hurrengo udara arte.

Merezitako txaloak bukatzearekin, pertsonen arteko ezberdintasunak agerian geratuko dira; %50ak gorriak ikusiko ditu, langabezia edo lan prekarioak, jubilazio eskasa, laguntzen murrizketa.

COVID-aren gainetik solidario izaten jarrai dezagun. Orain besarkadak murriztuta egon arren, gogora dezagun haien garrantzia!

MENDIZABAL
okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

ARRANO
taberna



Etan! eta gaztu
etako pintxoak

Etxeburueta 6
Telefonoa: 943 75 24 09

Carpinteria
MANU
Aroztegia

Atsek
Bostanek
Portuarenak
Sukaldeak
Tafelak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8, barrera - Mug. 636 05 81 25

BOLIA
TABERNA



Pirxoak, arinak,
kordintxoak
Gazte-giroko festa

ELIZPE
HORTZ KLINIKA



Zure geroak hartz klinikak,
puntu puntako teknologiaz lan
egiten dugu. Cati-Cam sistema
bertzaketa erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.k@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 14:00 - 20:00

Etxabe
Harategia



- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen ditu
- Sorakuntza baserrietako
produktuak
- Etxeko irupaki eta txistorrak

Etxeburueta 5
Telefonoa: 943 75 22 79

IZAGUIRRE
Igeltzeritza



Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformaak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 640 867 289

KM design

Kira Muntatzeak

943 76 99 85

karuntxokak@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3
BERGARA

- Diseinueta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-eremuak
- Logelak
- Zonak
- Atsek...

- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

FOGASLER
ITURGINTZA



943 75 16 46 (Sorakuzer) - 943 71 82 49 (Ofizial)
fogasleriturgintza@gmail.com

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA



amantza
dekorazioak
industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Eryena, sitarpenak • Administrazio lanak
Tratamendu burokratiko • Lan-urteko aholkularitza
Enpresen kontabilitate/auditazioak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. eta. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

KLB6

Kalebarren 6
943 67 71 26
Makina eta mekanika
moduluetan

Pepe Jimena
MATEO SCOTCH
VERO MODA

ISOLID
BUNICE

Sorakuzeko
Kooperatiba Elkarteak
1910etik aurrera

Arraindegia, janaria,
errapak, etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 02:30 eta 02:00 - 09:45
Larunbatak: 08:30 - 01:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

MABEL
INBAPAINDEGIA



- Baserrietako keratina
tratamendua
- Depilazioa
- Re-ustrairik gabeko
permanentea
- Makilajia
- Manikura
erdianunkorra
- Solariuma

Erreal 1
Tel.: 943 76 14 89

Euskalzaletasunaren alde:





Amaia Aldai liburuzainak liburutegiko sarreran jaso eta banatuko ditu liburuak.

Liburutegia zabalik neurri bereziekin

Astelehenetik aurrera, herritar guztiek liburutegian liburuak maileguan jasotzeko aukera izango dute.

Datorren astelehenetik aurrera, liburutegiak, era murriztuan bada ere, herritar guztientzako atea zabalduko ditu; ohiko ordutegian baina segurtasun neurri zorrotzekin. Oraingoz, irakurleek telefonoz (943 752 074) edo email bitartez eskatu beharko dituzte liburuak (liburutegia@soraluze.eus). Ondoren, liburuzainarekin batera zehaztuko den hitzorduan joan beharko dute liburua jaso edo entregatzera. Amaia Aldaia zehaztu duenez, irakurleak hala eskatuz gero, berak lagunduko dio irakurleari liburua aukeratzen. Horrekin batera, zehaztu du, oraingoz, Soraluzeko liburutegian dauden liburuak bakarrik eskatu ahalko direla, kanpoko liburutegietatik liburuak ekartzeko zerbitzua ez baita berraktibatu.

Ekainean berrabiaraziko da irakurle kluba

Udaleko kultura teknikariak jakinarazi duenez, Udalak ekainean berrabiaraziko du euskarazko irakurleen kluba. Lehen liburua Karmele Jaioren Aitaren etxea nobela izango da. Horrekin batera, koronabirusaren aurretik klubera etortzekoa zen Arkaitz Cano idazlea irailean etorriko dela ere jakinarazi du.

Jaien gaineko erabakia Kultura batzordean

Udaleko Kultura batzordea ekainaren 9an bilduko da eta Udalak bertan erabakiko du aurten jaiak egingo diren ala ez. Udalak bilera horretan aurkeztuko du asteotan prestatu duen egitarau alternatiboa.

Udalekuen erabakia 3an

Uztailean Kukumixok eta Udalak antolatu ohi dituzten udalekuak zalantzan daude oraindik. Azken egunotan Gipuzkoako Aldundiak, neurri zorrotzekin bada ere, udalekuak egitearen aldeko jarrera azaldu badu ere, Soraluzen behin betiko erabakia ekainaren 3an hartuko dute Udaleko Gazteria batzordeak egingo duen bileran.



Udalekuak iaz.

62 marrazki lehiaketan

62 neska-mutikok parte hartu zuten Krabelin pintura eskolak eta Soraluzeko Udalak antolatutako #MarraztuEtxean marrazki-lehiaketan. Antolatzaileak gustura daude parte-hartzearekin, uste baino haur gehiagok parte hartu baitzuen. Sari modura, 50 euroko sei bonu zozkatu dituzte parte-hartzaile guztien artean.

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA


ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

"Kontzentrazioa asko landu behar da"



Arrate Espilla Iriondo (Eibar, 1986) urritik zirkuko irakaslea da. Bost ikaslerekin abiarazi zuen ikasturtea, koronabirusaren krisiak guztia hankaz gora jarri zuen arte. Gorputz Hezkuntzako Magisteritza ikasketak egin zituen Gasteizen. Han, Zilipurdi zirkua ezagutu zuen eta bertan hasi zen zirkuko diziplinak ikasten, "batez ere oihalak", dio. **Dibertsiorako aukera emateaz gain, zirkuak bestelako onurak ere baditu...** Haurrangan zein nagusiengan gorputz eskema lantzen laguntzen du: koordinazioa, oreka, psikomotritate fina eta psikomotritate orokorra. Arreta jartzen ikasten ere laguntzen du; praktikak egiteko kontzentratu beharra dago, arreta handia jarri behar da. Batik bat, irudimena lantzen da. Umeeek espazio hori izatea oso garrantzitsua da, helduak direnerako.

Orain arte, zelako emaitzak lortu dituzu?

Umeeak guztiz motibatuta zebiltzan. Etxean ere praktikatzen zutelara kontzentratzen zuten eta kontzentrazioa lantzeko dinamikak barneratuta zituzten.

Zer esango zenieke zirkua sekula probatu ez dutenei?

Esparru oso zabala dela, eta diziplina asko daudela: akrobaziak, oihalak, diaboloa, mazak... Denok aurkitu ahal dugu talentu txikiren bat diziplinaren batean, beraz, animatzeko eta probatzeko. Azkenean, norberak bere barneko umeearekin jolasteko puntu hori aurkitzea lortzen du. **Esango zenuke azken boladan zirkua indartzen dabilela?**

Bai. Orain dela zazpi urte ere Gasteizen igartzen zen zaletasun hori... Akaso orain pizten dago, baina beti hor egon den zerbait da.



1. Arrate Espilla zirkuko tresnekin.
2. Arrate Espilla zirkuko udalekuetan, beheko ilaran, ezkerretik hasita, bigarrena.
3. Arrate Espilla zapiarekin.
4. Arrate Espilla zintarekin.

Harremanetarako

609 28 77 39

“Taberna zabalduko dut, arduratuta”

LUCELIA SILVA 'LUCI' BRASILDIK SORALUZERA



Lucelia Silvak, Lucik (Brasil, 1981) 16 urte daramatza Euskal Herrian. Lanagatik etorri eta Bergaran bizi izan zen lehenengo. Baina, orain dela 10 urte Soraluzean bizi da, azken sei urteak Casa del Pueblon lanean. Zortzi urte daramatza, berriz, ama ikusi barik. Hura, haren jatorduak eta Brasilgo klima (hemen hezetasun larregi dagoela dio) igartzen ditu gehien faltan.

Zer moduz Soraluzean?

Oso ondo. Jendea oso adeitsua eta atsegina da, oso ondo hartu naute. Herria, berriz, oso lasaia eta polita da, mendiz inguratuta, baserriak, horren berdea...

Bergararik Soraluzera, zelatan?

Krisian, Bergaran lan barik geratu nintzen eta Batzokian aurkitu nuen lana. Lanera etortzen hasi nintzen, baina gero bizitzen ere geratu nintzen. Herri berean bizi eta lan egitea luxua da. Hasieran txikia egin zitzaidan, baina segituan egokitu naiz. Orain, ez


nuke nahiko Brasilerara bizitzera bueltatu; hura asko aldatu da.

Tabernaria zara; zer moduz koronabirusaren krisiarekin?

Etkezalea naiz eta etxean egon behar zenez, ondo. Noski, ito ere egin naiz paseatu ezinagatik, baina beste batzuk okerrago pasatu dute. Hori bai, lanik egin ez dudana garairik luzeena izan da. Horrek bai arduratzen nau. Ekainaren 8an zabalduko dut taberna, baina taberna txikia da. Ez dut esperantza larregi, baina ahaleginduko naiz. Bestela, aurkituko dut beste zerbait, edozein lekutan. Lanari ez diot beldurrik.

Koloretako haize-errotatxoak ipini zenituen Mendiolan...

(Barre) Bai, eta jendeak ondo hartu zuen. Txalo egin dutenengatik, umeengatik... ipini genituen. Bizitzak buelta asko ematen ditu, haize-errotak bezala, eta denok putz egitea da behar dena.



1. Luci, Begoña eta Sonia, Ondarroan.
2. Brasildik Euskal Herrira, mapa.
3. Lucelia Mendiola industrialdean, berak ipinitako haize-errotatxoak atzean dituela.
4. Lucelia Silva etxean.

Pandemiak eta plaentxiarren umore beltza



IÑAKI GALDOS POLITIKARIA ETA
HIZKUNTZALARIA
GALDOSIRAZABAL.BLOGSPOT.COM

Egun hauetan eztabaida sutsu samarrak ikusten ari gara bizi dugun bezalako egoera batean umoreak izan behar lituzkeen mugei buruz, mugarik izatekotan. Sare sozialen bidez edota ditxosozko WhatsAppren bidez iristen zaizkigun hainbat gauza onartezinak dira askorentzat heriotza begien bistan dugunean, heriotzak inguratuta gauzkanean, Beste askorentzat, ordea, beti dator ondo umore pixka bat, unerik gordinenean ere. Aste honetan bertan David Sedaris idazle eta umorista amerikarraren elkarrizketa bat irakurri ahal izan dugu, bigarren aukeraren alde egiten, normala denez. Inoiz baino lan gehiagorekin ari omen da gainera, aitortu duenez.

Kontu horrekin bueltaka, Juan San Martin eibartarrarekin gogoratu naiz eta bere liburuen bila hasi etxean apaletan. Oso aspalditik irakurri gabea, banuen susmoa umore beltzez jositako hainbat pasadizo ekarriko zituztela hauen orrialdeek. Hala izan da. *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965) argitaratu zizkion Itxaropena Argitaldaria (sic) ezagunak, bere *Kulixka Sorta* ospetsuan, neurri batean Eibar aldizkarian idatziak zituenak



Zirikadak eta Eztenkadak liburuak. AMENTZERAUTA BLOGA

ere jasotzen, oker ez banago. Plaentxiarren umorea aipatu dut izenburuan, hangoak direlako San Martinen pasadizoetako protagonista gehientsuenak. Baina Soraluzeko jendeak sarri esan du eibartarrek asmatuak direla asko eta asko, bi herrien arteko harreman bitxiaren baitan elkarren artean tronpa-soinuan aritzeko. Bide batez esan dezadan, Juan Martin

**ORDUAN BEHINTZAT
POSIBLE ZEN
EGOERARIK
LARRIENARI UMORE
PIXKAT JARTZEA**

Elexpuruk ere idatzia duela Fernando Plaentxiarra liburua, aurreko bietan oinarritua. Barkatuko dit bergararrak baina ez dut etxean aurkitu, banuelakoan nengoen arren.

Aipatutako umore beltzaren adibide soil batzuk ekarri ditut hona, Juan San Martinen euskararen grafia gaurkotuz eta batuan jarriz. Asko laburtuz ere bai, jo beza liburuetara gozatu nahi duenak. 1918ko izurritearen (Trankasu deitzen dio San Martinek, gaztelaniaz ere hala ezagutu zen, trancazo) adibideak ere bai tarteko. Gogor jo zuen gainera Soraluzen gripe hark. Bistan denez, orduan behintzat posible zen egoera larrienari ere umore pixka bat jartzea.

Zenbait ipuin barregarri

Eztulka

Plaentxiako bi agure kanposantu ondoan pasiatzen omen zihozazen, horietako bat eztul zakarra dominatu ezinik "eju, eju..."

-Hori dok eztul zakarra daukana!

Besteak, kanposantura begira:

-Hor darenak gustora hartuko leukiek!

Zenbat hildako

Plaentxiako bi agure Bitoriako On Mateo Muxika gotzainak galdetu omen zion Martin Aranburu mediku bergararrari ea Deban jende asko hiltzen zen eta:

-Hemen danak; batzuk lenao eta beste batzuk geruao.

Osintxuko eguzki epela

Trankasuaren garaian Soralezeko jendea Osintxura (Bergara) joaten omen zen oinez eguzki epel bila, gero eta gehiago gainera, osasuna hobetu nahian. Osintxuarrek ez zuten hori begi onez ikusten, kutsatzeko arriskua ikusten zutelako.

Garai hartan Lete izeneko bat omen zegoen Osintxuko auzo alkate, ezizenez Sakristaua. Behin, joan omen zen eguzkia hartzen ari ziren

plaentxiarregana eta, eztabaida gogor baten ondoren, bidali egin zituen Osintxutik.

Plaentxiarrak altxatu ziren; ez azkenengo berba esan barik:

-Goazen ba Plaentxiara.

Gezurra jirudik, sakristaua izanda, honek ez jok nahi entierrorik bere herrixan!

Hankak

Joan ei zen Leandro izeneko bat gaixo zegoen Sarrapel laguna bisitatzera:

-Ño! Ez hao hain gaizki!

hanka bixak ohian daukazik behintzat!

-Hanka bixak ohian?

-Bai, Don Nikanor medikuak esan jostak hanka bat kanposantuan daukakela ta!!



JULIAN ZABALETA.

Alperrik...

Gaztandolako Paulok, Elgetara sarreran, kanposantuko horma jasotzen ziharduten gizon batzuekin topo egin zuen.

-Atsalde on, gizonak!

-Baita zeuri be.

-Badiharduzue?

-Bai, badihardugu.

-Alperrik diharduzue ba.

-Alperrik?

-Bai. Alper alperrik. Ze, eztao bildurrik barruan darenak urtetzeko, eta kanpuan darenak be ez dauke sartzeko gogorik...

Mesede baten orde

Behin, joan zen guraso bat bere semeari elgorria osatzen ibili zen medikuarengana kontua pagatzera. Karutxo iritzi zion, eta gizonak erregutu zion:

-Zeozer merketuko dostazu baina!

-Merketu? Zer dala ta?

-Ba, nere seme honi eskerrak, darabizuzelako aurten darabizuzen irabasisok.

-Zer ba? —erantzun zion medikuak.

-Bera izan zalako eskolako danerako elgorrixa pegau zotsena.

Adibide soilak dira, garai beltzenean umorerako beta izaten zela erakusten dutenak. Horra liburu eder batzuen gomendioa, Juan San Martin handia gogoan.

ZORION AGURRAK



Odile Basauri
Maiatzaren 21ean, 2 urte. Zorionak poxpolin! Asko maite zaitugu.



Bidane Lazpita Ormaetxea
Maiatzaren 14an, urtebete. Zorionak maizia! Etxeko guztien partez.



Oier Vaquero Aguirre
Apirilaren 15ean, 8 urte. Segi horrela txapelduna! Zorionak etxekoien partez.



Maddi Oregi
Ekainaren 10ean, 10 urte. Zorionak etxeko guztien partez. Asko maitte zaitugu!!



Inar Arroyo Madera
Maiatzaren 24an, 9 urte. Zorionak, Inar tximista! Dan-danon partez.



Beñoña eta Nora
Maiatzaren 24an, 71 eta 10 urte. Zorionak etxekoien partez.




Beñat Larrañaga
Maiatzaren 23an, urtebete. Zorionak mutil haundi! Jarraitxu beti bezin felixiano. Patxo haundi bat, batez be Markelen partez.



Irati
Apirilaren 7an, 5 urtetxo. Zorionak zure guraso, anai Ekain, amama aitxixa eta osaba izeben partez!




Iruñe Varela
Maiatzaren 20an, 30 urte. Zorionak politi hori! Besarkada handi bat etxekuen partez.



Eneko Gonzalez Armengol
Maiatzaren 18an, 9 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure egunean, etxekoien partez.



Kattalin Sudupe Arrizabalaga eta Angelica Pia
Ekainaren 8-9an, 6 eta 81 urte. Zorionak! Etxekoien partez!



Angel Luis eta Nieves
Maiatzaren 30an, urrezko etzeiak. 50 urte batera, ez da gutxi! Plaentxitik Tolosara eta Tolosatik Plaentxira, bizitzaren erronkak gairiditzen, beti batera! Maitasunez, zuek osatutako familiaren partez!

Zorion agurrak argitaratzeko jarraibideak

Aurrerantzean, Pil-pilean aldizkarian zorion agurrak argitaratzeko bidea ondorengoa izango da: plaentxia.eus/zorionagurrak helbidean sartu agurra eta argazkia. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hileko azken barikuan aldizkarian.

Almar
Espaialdegi
Esterika
Solariuzua
Galdakoz 4, Artea Tel.: 943 75 25 23 - 682 51 24 04

Txoko
Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerenak, ogitarlekotak, ratiotak, pizzaak, gazakia...
Etxekoak egiten dira
Tel. 943 75 17 88

Batzoki
Jatearen plazarrak, bertatik bertara
Eguneko menua, asteburuetan karta eta ratiotak, txakurtxak eta hamburgerenak, eskaragü berriak
Estalla eta lagun onenak beaiztatik
Etxekoak, 943 75 20 26

Armendi Jatetxea
Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko fritotak
Soufla
Tel.: 943 75 10 02

Hortz klinika
Ezker 1
Tel.: 943 75 16 13
Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.591
Katia Gostino
Odontologoa
K.Z. 48.001.541
27 urteko esperientzia
odontologia, protesiak, odontopediatria, ortodontia, implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (DDE) eskaintza, ortu eta bika

JUAN MARI ARRANDEGIA
ARRANDEGIA
MEDIKU PLAZA - 943 75 24 48
Arrak trankak
Etxeko erretako berriak
Etxekoak hartzen ditugu

JAIÖBERRIAK

**Katariñe Urbieta Borinaga**

Maiatzaren 11n jaio zen.

Ondo etorri, Katariñe maitxia!

**Alaitz Ramos Alberdi**

Maiatzaren 9an jaio zen.

HILDAKO ETA JAIÖTAKOAK

Hildakoak

Eustakio Agirrebeña Larrañaga
Ildefonso Leonardo Hernandez
Mari Carmen Acha Palacios
Felisa Landa Arizmendiarieta
Estanislao Rodriguez Alonso

Jaiotakoak

Ines El Fanidi

Eskela zerbitzua

Pil-pilean aldizkarian eta
Plaentxia.eus webgunean eskela
argitaratu nahi baduzu, deitu
605 706 086 telefonora edo
eskatu zeure funerariari.

2020 2021 MUSIKA ESKOLA EKAINAK 1
MATRIKULAZIOA EKAINAK 19

KLARINETEA SAXOFOIA PIANOA GITARRA SOINUA TRIKITIXA ZEHARKAKO TXIRULA TXISTUA
 PANDEROA BIOLINA TRONPETA TRONBOIA ABESBATZA PERKUSIOA BAXU ELEKTRIKOA
 MUSIKA TAILERRA MUSIKA HIZKUNTZA TALDE INSTRUMENTALA GITARRA ELEKTRIKOA
 BANDA FOLK TALDEA GANBARA MUSIKA GAZTE ETA HELDUENTZAKO MUSIKA HIZKUNTZA

KONTAKTUA:

✉ soraluzemusika@gmail.com ☎ 943 75 15 44



TXURRUKAKO
- Sukalitatea -

GAZTELUPE
tabernan



ETXERAKO OTORDUAK ASTE OSOAN
ERRAZIOAK • MENUAK • NAHIERAKOAK

Eguneko menua eramateko zein bertan jateko

Erreserbak
654206420

11:00-16:00 / 18:00-21:00
asteleheneretik ostegunera
11:00-24:00
ostiral eta zapatu
11:00-21:00
Domekan

Kontsultak



WhatsApp



Ikus ezazu
eskaintza
Plaentxia.eus
atarian

